



KANALAK

Kanalari buruz hitz egiterakoan, enpresa merkatuko segmentu ezberdinekin nola komunikatzen den zehazten da, hau da, nola iristen den produktua beraiengana, eta beraz, nola eskeintzen dien bere balio proposamena.

Komunikazio, banaketa eta salmenta kanalek, enpresa eta bezeroen arteko harremana zehazten dute, eta beraz, bezeroak enpresarekin izango duen esperientzia ere.



Kanalek, besteak beste, honelako funtzioak dituzte: bezeroei enpresaren produktu eta zerbitzuak aurkeztea, enpresaren balio proposamena baloratzen laguntzea, salmenta ondorengo zerbitzua eskaintzea, besteak beste.

Beraz, guzti hau kontuan izanda, gure produktuak norberaren kanala erabiliko du, hau da, geure kanal propioa. Kanal honen barruan, bi azpimota aurki ditzazkegu; zuzena eta zeharkakoa. Gure ekoizkina hauen bien arteko nahasketa da, gauza batzuentzat barne talde komertzial baten laguntza beharko dugulako, eta beste batzuentzat, aldiz, gure denda edo enpresak berak kudeatuko duelako.

Hauen adibide sakonagoak ezartzeko, gure lepokoa sortzeko, beste enpresa bati, AliBabari esaterako, beharrezko materialak eskatu dizkiogu, eta era berean, bitxi-dendan, chip-ak lepokoan txertatuko dituzte. AliBabaren adibidearekin jarraituz, webgune honetan eskatutako produktuak GLS garraio enpresak bideratuko du, eta honek gure lokalera eramango ditu produktuak baita berezoen etxera ere. Era berean, Alibabatik bitxi-dendara chip-ak eramateko, Fedex enpresa arduratuko da.



Komunikazio kanalarekin hasteko, taldeko kideek webgune bat sortuko dugu, eta hemen eduki ezberdinak jarriko ditugu, hau da, produktua zein den erakustetik, gure bezeroek izaten dituzten zalantza guztiak argitzeko atal bat egongo da ere.

Banaketa kanalari dagokionez, lehen aipatu dugun bezala, lepokoa guk sortutako web baten bidez eros daiteke, baita dendan bertan ere. Banaketari erreparatuz, enpresa ezberdinen garraio zerbitzuen bidez bideratuko dugu.

Atal honi amaiera emateko, gure zerbitzua sare sozialekin helaraziko diegu gure bezeroei, bereziki Instagram eta TikTok plataformekin. Hau da gure kontua Tiktoken zein Instagramen: @arex.jewellery

Bertan, berritasunak, diseinu berriak, kolaborazioak igoko ditugu besteak beste.

Gure ustez, gaur egun proiektua aurrera eramateko eta jendeari produktu honi buruz jakinarazteko oso egokiak iruditzen zaizkigu sare sozialak. Hortaz gain, oso trebeak gara hauen erabilerarekin, beraz, abantaila besterik ez da guretzat.

